



## I. ATALA

### BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA

#### Foru Enpresak eta Foru Erakundeak

#### Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea (GUFÉ)

**Behin-Behineko Ebazpena, Barneko Informazio-Sistemaren Organo Arduradunaren (BISOA) osaera aldatzekoa, Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 6ko 75/2023 Foru-Dekretuari atxikitzearen esparruan.**

2026ko martxoaren 16ko ebazpenaren bidez, GUFÉko gerenteak hau xedatu du:

«*Lehena:* Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea erregulazioari atxikitze-ko, bete egingo da Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 6ko 75/2023 Foru Dekretua, Bizkaiko Foru Aldundian arau-hausteen berri emateko eta informatzaileak babesteko barneko informazio-sistema sortu eta arautzen duena, beherago adierazten diren salbuespenak gorabehera.

*Bigarrena:* Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen barneko informazio-sistemaren organo arduraduna (BISOA) kide anitzeko organo administratiboa da, eta honela egongo da osatuta:

- Presidente titularra: Zerbitzu Orokorren zuzendaria, Alazne Rubio Terradillos.
- Ordezko presidentea: Trebakuntza, Euskara eta Berdintasun Arloko burua, Maria José Larrinaga Artetxe.
- Idazkari titularra: Fidel Martínez Ruiz letratu aholkularia.
- Ordezko idazkaria: Kontratazio Administratiboaren Arloko zuzenbideko lizentziaduna, Irantzu Goitia Goikoetxea.
- Bokal titularrak: Lan Arriskuen Prebentziorako Arloko teknikaria, Antón Dublang Arsuaga, eta Joseba Lekue Oleagordia goi-mailako ingeniaria.
- Ordezko bokalak: Lan Arriskuen Prebentziorako Arloko teknikaria, Verónica Atxutegi Vela, eta Kalitate, Irudi eta Komunikazio Arloko goi-mailako teknikaria, Rosalía Duque Martínez.

*Hirugarrena:* Barneko informazio-sistemaren arduradunak Informatzailea Babesteko Agintaritzaren Independentzia eskudunari jakinaraztea aurreko apartatuan zerrendatu diren BISOAko kideen izendapena, ebazpen hau eman eta hurrengo hamar egun balioduneko epean.

*Laugarrena:* Ebazpen honen berri ematea Zerbitzu Orokorren eta Laguntza Zerbitzuen Zuzendaritzari, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Intranetean eta Foru Erakundearen webgunean argitara dadila xedatzea.

*Bosgarrena:* Ebazpen hau Gobernu Batzordeari jakinaraztea, egiten den hurrengo bilkuran, baliozkotu dezan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 52. artikuluan xedatzen denez.»

Bilbon, 2026ko martxoaren 16an.—GUFÉko Gerentea, David Latxaga Ugartemendia